

## OINARRIAK

### “DASTATU GETXO” PINTXO IBILBIDEAREN VIII. EDIZIOA

Kutxabank, Eusko Label eta El Balneario La Hermida-ren babesa jaso du “Dastatu Getxo” Pintxo Ibilbidearen VII. edizioak, eta, proiektuan parte hartzen duten ostalaritza-enpresak bultzatzea eta ekimenean parte hartzen duten bezeroen konfiantza eta fideltasuna saritzea dauka helburu.

#### 1. PARTE HARTZEN DUTEN ENPRESAK:

- Banderola batean jardueraren irudia erakusteagatik eta ekimenaren beste euskarrietan agertzeagatik identifikatu ahal izango dira.
- Ekimenean parte hartzen duten enpresen zerrenda eta horiek proiekturako jarri dituzten pintxoak webgune honetan argitaratuko dira: [www.getxoenpresa.com/actividades/ruta-de-pintxos-viii-saborea-getxo/](http://www.getxoenpresa.com/actividades/ruta-de-pintxos-viii-saborea-getxo/).
- Ekimen honi lotutako pintxoak ostalaritzako establezimendu bakoitzeko sukalde ordutegiaren eta bere jardueraren arabera eskainiko dira.

#### 2. SARIAK:

- Gau bateko egonaldi 1 La Hermida bainu-etxean, bi pertsonentzat, gosariarekin eta zirkuitu termal eta ludikoarekin (80 minutu).
- Menua + zirkuitu termal eta ludikoa bi lagunentzat (80 minutu) **La Hermida bainu-etxean**.
- 5 zirkuitu termal eta ludiko bi lagunentzat (80 minutu) **La Hermida bainu-etxean**.
- 100 euroko opari-txartel 1, “Dastatu Getxo” pintxo ibilbidearen VIII. edizioan parte hartzen duten ostalaritzako enpresetan erabiltzeko.

#### 3. ENPRESEK BEZEROEI KARTILLAK EMATEA

- Uztailaren 12tik 15era eta uztailaren 19tik 22ra (biak barne), ekimenean parte hartzen duten enpresek, bezeroek proiektuari lotutako pintxoa kontsumitzean, zigilua daukaten kartillak emango dizkiete eta beraiek aurkeztutakoak zigitatuko dituzte.
- Sarien zozketan parte hartu ahal izateko, bezeroek proposatutako pintxo-ibilbideak egin eta kartilletan ahalik eta zigilu gehien pilatu eta harremanetarako datuak irakurtzeko moduan bete beharko dituzte. Ekimenean parte hartzen duten establezimenduetan horretarako jarriko diren kutxetan sartu beharko dituzte kartillak uztailaren 23a baino lehen.

#### 4. SARITUTAKO KARTILLEN ETA SARITUTAKOEN HAUTAKETA

- Zozketa zorizkoa izango da erabat, eta kartillak kutxetan sartzen dituzten bezeroen artean egingo da uztailaren 26an.
- Kartilla zozketan onartzeko, honako baldintzak bete beharko ditu:
  - Kartillan bezeroaren harremanetarako datuak, izena, abizenak, telefonoa eta emaila adieraziko dira argi eta garbi.
  - Pintxo ibilbidea egin duten kartillen artean egingo da zozketa, edo bestela, establezimendu desberdinetako zigilu gehien daukaten artean.
  - Pertsona bakoitzeko sari bat emango da, eta pertsona berari dagozkion 2 txartel aterako balira, lehenengoak bakarrik balioko du. Sari guztiek izango dute irabazlea.
- Saritutako 8 pertsonen zerrenda uztailaren 26an argitaratuko dira [www.getxoenpresa.com](http://www.getxoenpresa.com) webgunean, eta getxoenpresa facebook-profilean eta getxo\_enpresa twitter-profilean.

#### 5. SARI-BANAKETA

- Sarien banaketa uztailaren 27an egingo da (aurreikusitako eguna) elkartearen egoitzan. Bertan izango dira, iragarritakoaren arabera, enpresa babesle eta kolaboratzaileak, baita antolatzailea ere, Getxo Enpresa.
- Sari bakoitza jasotzeko, ezinbestekoa da saritutako pertsonak, edo hark izendatuko beste batek, saria duen kartilla trukatzeko eta sari hori jasotzeko adierazten zaizkion egun, ordu eta tokian azaltzea. Etorri ezin izatekotan, saritutako hurrengo pertsona aukeratuko da, erreserba gisa adierazitakoa.

*“Dastatu Getxo” pintxo ibilbidearen VIII. edizioan parte hartzeak goian adierazitako oinarri guztiak erabat onartzea dakar. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gairi buruz erabakia hartzeko eskubidea gordetzen du.*